



## **BABES AKUSTIKO BEREZIKO EREMUAK LEHENESTEKO PARTE-HARTZE PROZESUA (2021EKO MAIATZATIK EKAINERA).**

### **PROZESUAREN LABURPENA ETA EMAITZAK.**


Zarataren Aurkako Planean hartutako konpromisoak betetzeko, Basauriko Udalak parte-hartze prozesu bat jarri du abian, babes akustikoaren arloan esku hartzea behar duten **udalerriko eremuak lehenesteko**.

#### **I. fasea: kontsulta online**

Helburu horrekin, Udalak **online kontsulta** bat prestatu zuen (**zabalik egon zen maiatzaren 5etik 20ra** bitartean), eta, horren bidez, herritarrek beren iritzia eman zuten, eremuak lehenesteko irizpideen garrantzi mailari buruz.

Hauexek dira lehenetsi beharreko irizpideak: **ez betetzearen neurria** (zarata-muga 1 dB-tan ala dB askotan gainditzen den); ez betetzea **noiz gertatzen den** (gauetz ala egunez/aste barruan ala asteburuetan...); ez betetzea **errepikatzen den ala ez** (zarata-muga gainditzen bada aldian behin ala sarritan); zaratak **zenbat laguni eragiten dion; eragozpen-maila** (Udalak 2016an egindako azterlan akustikoaren emaitzetan oinarrituta); eremu jakin horretan **auzotarren kexak** dauden ala ez, eta eremu horretan epe laburrera **esku hartzeko udal edo udalaz gaindiko proiektuak** badauden ala ez dauden.

Betetako 194 galdetegiaren arabera, lehenetsun-irizpideek honako hurrenkera hau izan behar dute (**1, garrantzitsuena; eta 7, garrantzi gutxienekoa**).

**ONLINE KONTSULTAREN EMAITZAK**

**II. fasea: herritarren parte-hartze saio antolatua**

Bilera egin zen udalerriko elkarte ekologista eta auzo elkarteekin, herritarrentzako galdeketaren emaitzak aztertzeko.

Udalak irizpideak adostea proposatu zien, eremu zehatzak kontuan hartu gabe eta herritarren inkestako hiru multzoak, ahal zen neurrian, errespetatuta (aurreko taulan berdez, horiz eta gorriz koloreztatutakoak). Horretarako, Udalak emandako datu teknikoak eta akustikan espezializatutako aholkularitza-enpresa baten laguntza ere izan zituzten. Bilerara etorritakoen arteko adostasuna erabatekoa izan zen.

Irizpideetarako, honako lehentasun-hurrenkera hau ezarri zuten:

1. Ez-betetze maila
2. Ez-betetzea errepikatzea
3. Ez-betetze aldia
4. Eragindako eragozpenaren maila
5. Zaratak eragindako pertsonen kopurua


Eztabaidaren ondorengo aldaketa bakarra ERAGINDAKO ERAGOZPENAREN MAILA irizpidean izan zen: 2. lekutik 4.era jaitsi zuten. Taldeak aldaketa hori egin zuen argibide teknikoak entzun eta gero: esan zuten logikoagoa zela IRIZPIDE OBJEKTIBOAK, KUANTITATIBOAK ETA TEKNIKOAK lehenestea, subjektiboak, kualitatiboak eta pertsonalak baino. Elkartearen iritziz, zentzuzkoa da banakako inkestan lehentasuna ematea irizpide subjektiboari; baina, udal adostasuna lortu ahal izateko, komenigarriagoa zen, beren iritziz, irizpide subjektiboak egotea berez kuantitatiboagoak eta objektiboagoak diren beste bi irizpideak baino beherago.

Bestalde, taldeak erabaki zuen herritarrek gutxien baloratutako bi irizpideak kontuan ez hartzea, online galdetegiaren emaitzak aintzat hartuta.

Irizpideek eragindako eremuen mapa gehigarriak aztertu ondoren, taldeak honako hau adostu zuen, talde teknikoaren oniritzirekin:

**1. Udalerriko hiru eremu zehatzetan irizpide gehienak agertzen dira, eta, beraz, eremu horiek lehenetsi beharko lirateke. Gune horiek antzeko ezaugarriak dituztenez, logikoena da denak batera lantzea.**

**2. Eremu horietan, Adifek kudeatutako C3 (Bilbo-orduña) trenbide-linearen inguruan, gainditu egiten dira kalitate akustikoko helburuak. Bertan, zarata-foku nagusia trenbidea da, eta, ondoren, errepideko zirkulazioa.**



Adifen trenbide inguruan kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuen irudia (koloreztatuta). Parte-hartze prozesuan adostu dute eremu horiei lehentasuna ematea.